

2018/12/11, Santurtzi

Kaixo, Olentzero:

Ni Fatima naiz. Santurtzin bizi naiz, baina Senegalekoa naiz. 10 urte ditut eta aurten, Gabonetan, Logroñora joaten naizenean, 11 urte beteko ditut.

Aurten, ez dizut jostailurik eskatuko, ez ditudalako behar. Behar ditudan gauzak eskatuko dizkizut:

Lehenengo gauza, nire neba nire urtebetetzean egotea da. Inoiz ez da egon nire urtebetetzean, baina zure laguntzaz, ziur nago etorriko dela.

Bigarren gauza, nire lagunak ondo pasatzea Gabonetan, ni Santurtzin egon ez arren.

Eta azkenik, niretzako gauza eskatuko dizut. Nire aitona-amona oso urrun bizi direnez, abenduaren 25ean ohetik altxatzean, gutun bat ikusi nahi dut zuhaitzaren azpian. Gutun horren barruan, Senegalera joaten den hegazkin txartel bat aurkitzea. Horrela nire aitona-amonekin pasatuko nuke Gabonak.

Hori da guztia, espero dut gabon zoriontsuak ospatzea. Zuk eta zure lagunak.

**FATIMA.N**